

Diziplina eta Berme kodea



ehbildu

Aurkibidea

Atarikoa	5
I. Titulua. Aplikazio-eremua	6
II. Titulua. Printzipioak eta oinarrizko arauak	7
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	7
II. kapitulua. Arau-hausteei eta zehapenei buruzkoa.....	10
III. Titulua. Prozedura	15
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	15
II. kapitulua. Prozeduraren hasiera.....	17
I. atala. Aurretiko fasea: atariko jarduketak eta adiskidetzea	17
II. atala. Hasiera formala.....	18
III. kapitulua. Prozeduraren instrukzioa.....	19
IV. kapitulua. Ebazpen-proposamena.....	20
I. atala. Absolbitze-txostena	20
II. atala. Zehapen-proposamena	21
V. kapitulua. Ebazpena eta itxiera	22
VI. kapitulua. Prozedura amaitzeko beste modu batzuk	22
VII. kapitulua. Betearazpena	23
VIII. kapitulua. Errekurtsoa.....	24
IX. kapitulua. Izapidetze erraztua	24
X. kapitulua. Jarraitzaileentzako araubide berezia	25
Azken xedapenak.....	26
Lehen xedapen gehigarria: Indarkeria Matxistaren aurkako Protokoloa	26
Bigarren xedapen gehigarria: kodearen interpretazioa.....	26
Xedapen iragankorra: haribideko prozedurei aplikatu beharreko araubidea	26
Xedapen indargabetzailea: aurreko araudia indargabetzen du	26
Azken xedapena: indarrean ezartzea	27
Aldaketen historia	28

Euskal Herria Bilduren Estatutuetoako 11. artikuluaaren garapena.

Atarikoa

Euskal Herria Bildu (aurrerantzean, EH Bildu) proiektu abertzalea, independentista eta ezkerrekoa da, pertsona guztien artean eraikia, behetik, konpromisoarekin, parte hartuz eta elkar zainduz.

Gizartearekiko konprometitua eta aktiboa den erakunde batean, pertsona anitz eta parte-hartzaileek osatutakoan, tentsioak edo gatazkak ager daitezke. Nola kudeatzen diren da garrantzitsua. EH Bildun, entzuteari, elkarriketari, adostasunari eta erreparazioari ematen diegu lehentasuna zehapenaren gainetik.

Diziplina eta Berme kode hau ez dago zigor-logika batean oinarrituta; aitzitik, proiektu erkidea babesteko tresna gisa sortu da. Arau argiak, eskubideak eta betebeharrak eta barne-bizikidetzari eragin diezaioketen egoerei aurre egiteko prozedura zehatzak ezartzen ditu.

Estatutuetako 11. artikulua EH Bilduri arau-haustea, ondorioak eta errespetatu beharreko bermeak arautzeko ahalmena ematen dio. Aldi berean, kode honek jarduteko eredu propio bat jasotzen du: lehenik ulermenaren eta erreparazioaren alde egitea.

Horregatik, edozein zehapen-espedita hasi baino lehen, adiskidetze-espazio bat eskaintzeko ahalegi-na egingo da. Elkarri entzuteko, gertatutakoa azaltzeko eta irtenbide partekatu bat bilatzeko aukera bat izango da. Akordioa lortzen bada, ez da prozedura formalik irekiko eta hitzartutakoa jasota geratuko da.

EH Bildu zaintzeak hura osatzen dutenak zaintzea ere esan nahi du. Ikuspegi horren helburua da bere balioekin koherentea den eta errespetuan, justizian eta barne-kohesioan oinarrituta dagoen erakunde bat sustatzea.

Testuinguru honetan, indarkeria matxistaren aurkako borroka EH Bilduren printzipio nagusietako bat da. Tresna zehatz eta eraginkor gisa, Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloak (IMAP) prozedura bat ezartzen du, zigorra ez ezik, erreparazioa, laguntza eta jarrera matxisten dekonstrukzioa ere helburu dituen.

Protokolo horri heltzen dioten bilkideak hari soilik lotuta egongo dira, eta ez zaie Kode honetan jasotako diziplina-erregimen orokorra aplikatuko. Aitzitik, bilkide batek Protokoloa ukatzen badu edo bertan ezarritakoa betetzen ez badu, Kode honetan araututako diziplina-erregimena aplikatuko da.

Azken finean, Kode hau zaintza eta koherentziarako tresna da, gure proiektu komuna elkarrekin eraikitzen jarraitzeko.

I. Titulua. Aplikazio-eremua

1. artikulua. Kodearen aplikazio-eremua.

1. EH Bilduren estatutueta xedatutako eta kode honetan garatutako diziplina-araubidea eta zehatzeko ahalmena zuzenean aplikatuko zaizkie EH Bilduko bilkide guztiei.
2. Era berean, araubidea modu osagarrian aplikatuko zaie honako hauei, bateragarria den heinean eta berariazko arau aplikagarriei kalterik egin gabe:
 - (A) Langileak, liberatuak eta edozein modu juridikotan kontratatuak barne.
 - (B) EH Bilduren izenean diharduten kargu publikodunak eta kargu organikodunak.

Kasu horietan, bilkideen estatutu-betebeharrak eta estatutu hauetan tipifikatutako arau-haustek interpretazio-erreferentzia esanguratsu eta osagarritzat joko dira berariazko arau-tresna aplikagarriei dagokienez, hala nola EH Bilduren Kode Etikoari, barne-funtzionamenduko erregelamenduei eta, langile lan-kontratudunen kasuan, hitzarmen kolektibo aplikagarriari dagokienez.
3. Diziplina-araubidea printzipio hauekin koherentea den moduan interpretatu eta aplikatu beharko da: ekimen politiko bateratua, etika militantea, funtsezko eskubideen errespetua eta EH Bilduren proiektu politikoaren babesa.
4. Erregelamendu honen xedapenak ez zaizkio aplikatuko <https://elkarrekin.ehbildu.eus/> plataformaren bidez erregistratutako jarraitzaileei (aurrerantzean, EH Bilduren Komunitatea). Kasu horietarako, berariazko prozedura bat garatuko da, kode honen 49. kapituluan araututa dagoena.
5. EH Bilduren estatutu-xedapenen bidez edo haiek garatzen dituen erregelamenduzko arau baten bidez zehatzeko ahala esleituta daukaten organoei dagokie ahal hori erabiltzea.

Titulua II. Printzipioak eta oinarrizko arauak

I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

2. artikulua. Printzipioak eta integrazio-arauak

1. Zehatzeko ahala EH Bilduren estatutuetan ezarritako printzipioekin bat etorri erabiliko da. Nola-nahi ere, printzipio hauek errespetatu beharko dira: eskubidearen benetako babesa, justizia, alderdien benetako berdintasuna, entzutea, kontraesana, proportzionaltasuna, tipikotasuna eta errugabetasun-presuntzioa.
2. EH Bilduko estatutuek edo haiek garatzen dituzten arauak ez badute onartzen zehatzeko ahala erabiltzean agertzen den konturen bat ebaztea, EH Bilduren Kontrol eta Berme Batzordeak erabakiko du nola jardun kode honen interpretazioari dagokionez, zuzenbideko printzipio orokorretan ezarritakoari jarraituz.
3. Ezingo da zehapenik ezarri dolorik edo errurik ez badago.

3. artikulua. Tipikotasuna

1. Estatutu-arauak, erregelamenduzko arauak, kode etikoak, protokoloak eta gainerako arau-xedapenek, hau da, EH Bilduren corpus juridiko guztiak tipifikatuko dituzte arau-haustek, ahalik eta xehetasun handienarekin, eta kategoria hauetan sailkatuko dituzte: oso astunak, astunak eta arinak.
2. Erregelamendu bidezko garapenek arau-haustek eta zehapenak zehaztu edo graduatu ahal izango dituzte, berririk sortu gabe eta haien izaera aldatu gabe, haien identifikazioa eta egokitasuna hobetzeko.
3. Arau-haustetzat jotzen diren egitateak izaten direnean indarrean dauden zehapen-xedapenak izango dira aplikatzekoak.

4. artikulua. Zigorgarritasuna

1. Arau-hauste burutuak bakarrik izango dira zigorgarriak.
2. Ez dira zehatuko ez konspirazioa, ez proposamena, ez arau-haustek egiteko probokazioa. Arau-haustearen apologia ere ez da zehatuko.

5. artikulua. Erantzukizunetik salbuesteko arrazoiak

Egindako arau-haustearen izaerarekin bateragarriak diren erantzukizunetik salbuesteko arrazoiak aplikatu ahal izango dira, ezinbesteko edo ezusteko kasuen arabera.

6. artikulua. Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak

1. Erruduntasun txikiagoa islatzen duten inguruabarrak daudenean, aringarriak aplikatu ahal izango dira, arau-haustearen izaera eta xedea kontuan hartuta.
2. Zehapen-arauan berariaz aurreikusita daudenean soilik aplikatu ahal izango dira astungarriak, baina berrerortzea beti joko da astungarritzat.
3. Doloa eta zuhurtziagabekeria aringarritzat edo astungarritzat jo ahal izango dira, kasuaren arabera.
4. Egitateak argitzen laguntzea aringarritzat hartu ahal izango da.

7. artikulua. Erantzuleak

Egileak bakarrik izango dira arau-hausteen erantzuleak.

8. artikulua. Baterako erantzukizuna, ez-egiteagatik edo beharrezko laguntzagatik

1. Arau-haustea zuzenean —banaka, beste norbaitekin batera zein beste pertsona fisiko edo juridiko bat tresna gisa erabiliz— egiten dutenak dira egileak.
2. Egitatea gauzatzeko ezinbesteko ekarpena egin duten pertsonak beharrezko laguntzailatzat joko dira.
3. EH Bildun daukan funtzioagatik edo erantzukizunagatik arau-haustea eragoztera behartuta dagoen pertsona batek jarduten ez duenean eta arau-haustea ahalbidetzen duenean ere egongo da ez-egiteagatiko erantzukizuna.

9. artikulua. Arau-pilaketa

Arau-haustea tipifikatzen dituzten bi manuren edo gehiagoren arabera kalifika daitezkeen egitateak zehatzeko, erregela hau hartuko da kontuan: zehapen astunena dakarren arau-haustea tipifikatzen duen manuak zehapen txikiagoa dakarten arau-haustea tipifikatzen dituenak baztertuko ditu.

10. artikulua. Arau-hausteen pilaketa

Pertsona batek arau-haustetzat jotzen diren bi egitate edo gehiago egiten baditu, bakoitzari dagozkion zehapen guztiak ezarriko zaizkio.

11. artikulua. Non bis in idem

1. Zehapen penal bat edo administrazio-zehapen bat jaso duten egitateak ezingo dira diziplinaren alde-tik zehatu subjektuaren nortasuna, egitatea eta funtsa bat datozenean.
2. Hala ere, ustelkeriarekin lotutako delituengatik kondena penal irmo bat ezartzen denean, errege-lamendu honetan xedatutako kanporatze-zehapena aplikatuko da, 22.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Nolanahi ere, organo zehatzaileak berariaz arrazoitu beharko du barne-zehapenak ez dakarrela zigor-bikoiztasun neurrigaberik eta EH Bilduren antolamenduaren eta etikaren arloko interesari erantzuten diola.

12. artikulua. Erantzukizuna azkentzea

Erantzukizuna arrazoi hauengatik azkentzen da:

- (A) Zehatutako pertsona fisikoa hiltzeagatik.
- (B) Ezarritako zehapena osorik betetzeagatik.
- (C) Errebokatzeagatik.
- (D) Arau-hausteak preskribatzeagatik.
- (E) Zehapenak preskribatzeagatik.

13. artikulua. Erreboka daitezkeen kasuak

1. Errebokatzea salbuespenez eman ahal izango da ezarritako zehapena legezkoa izan arren neurrigabea denean ekitatearen ikuspegitik eta ez dagoenean beste modurik bidezko irtenbide bat aurkitzeko.
2. Hala justifikatzen duen interes orokor zehatz eta egiaztatu bat badago ere izango da bidezkoa.

14. artikulua. Zehapenak errebokatzearen araubide juridikoa

1. Hegoaldeko Idazkaritzari (organo zehatzaileari) dagokio EH Bilduren estatutuen arabera ezarritako zehapenak errebokatzea.

Zehatutako pertsonak Kontrol eta Berme Batzordearen aurrean babes-errekurtsoa agortu duenean eta errekurtsoa guztiz edo hein batean ezetsi denean bakarrik eskatu ahal izango da. Ezingo da erabili errekurtso horren ordezkoko bide gisa.

2. Prozedura modu hauetan hasi ahal izango da:
 - (A) Alderdi interesdun batek eskatuta.
 - (B) Organo zehatzaileak ofizioz hasita.
 - (C) Zehapena proposatu zuen organoak proposatuta.
3. Izapide hauek hartu beharko ditu barne:
 - (A) Zehapena proposatu duen organoaren txostena
 - (B) Organo zehatzailearen txostena.
 - (C) Zehatutako pertsonaren alegazioak.
 - (D) Kontrol eta Berme Batzordearen txostena, zehapena berretsi bazuen.
4. Izapide guztiak bi (2) hilabeteko epean ebatziko dira, zehapen-ebazpena irmotzat jotzen denetik zenbatuta.
5. Jokabide arau-hausle bat errepikatzeak edo horretan berrerortzeak errebokatzeko eskatzea galaraziko du.

6. Errebokatzeko erabakiak arrazoituta egon beharko du eta egiaztatu beharko du ez direla urratzen ez berdintasun-printzipioa, ez EH Bilduren antolamenduaren arloko interesa, ez haren balioak.
7. Errebokatzea erabatekoa edo partziala izan ahal izango da, baina betetzeke dagoen zatiari bakarrik eragingo dio. Ez du sortuko ez itzulketarik ez konpentsaziorik jada betearazitako zatiagatik.
8. Errebokatzeko eskaerak ez du eteten zehapenaren betearazpena, baina preskripzio-epea eten egiten du.

15. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

1. Arau-hausteen eta zehapenek epe hauetan preskribatzen dute:
 - (A) Oso astunak: hiru (3) urte.
 - (B) Astunak: bi (2) urte.
 - (C) Arinak: urte bat (1).
2. Arau-hausteen preskripzio-epea une honetatik aurrera zenbatzen da:
 - (A) Arau-haustea egin eta hurrengo egunetik.
 - (B) Arau-hauste jarraituetan, arau-haustetzat jotzen den azken egintzatik.
 - (C) Arau-hauste iraunkorretan, jokabidea gelditzen denetik.
3. Preskripzioa eten egiten da zehapen-prozedura irekitzen denean, ustezko erantzuleak horren berri badauka. Epe osorako berrabiaraziko da baldin eta pertsona horri egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik hiru (3) hilabete baino gehiagoz gelditzen bada edo erantzukizuna deklaratu gabe amaitzen bada.
4. Zehapenaren preskripzio-epea zehapen-ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunean hasten da. Babes-errekurtsoa jartzen bada, epea errekurtsu horren ebazpen irmoa ematen denetik aurrera zenbatuko da.
5. Zehapenaren preskripzioa zehapena betearazten hastean etengo da, zehaztutako pertsonak berri izanda, eta epe osorako berrabiaraziko da hari egotz dakioken arrazoirik gabe bi (2) hilabete baino gehiagoz gelditzen bada. Betearazpena judizialki etenda dagoen denboran ere etengo da preskripzioa, eta etendura kentzen denean hasiko da berriz zenbatzen.

II. Kapituluia. Arau-hausteei eta zehapenei buruzkoa

16. artikulua. Arau-haustearen kalifikazioa

1. Estatutuen 11. artikuluan ezartzen da arau-haustear arintzat, astuntzat edo oso astuntzat joko direla.
2. Kasu zehatz bakoitzean egindako arau-haustea nolakoa den zehazteko, arau-hauste moten deskribapenean jasotako elementuak bakarrik hartuko dira kontuan.

17. artikulua. Arau-hauste arinak

Honako jokabide hauetakoren bat agertzea hartuko da arau-hauste arintzat:

1. Agindutako funtzio edo karguak betetzean zabarkeriaz edo utzikeriaz jardutea.
2. Kargu publiko edota organikoak dituzten bilkideek ekitaldi organiko edo publikoetan ez parte hartzea, horretarako behar bezala arrazoitutako justifikaziorik ez badute.
3. Desadostasunak adierazteko, EH Bilduk lege ezarritako bideak eta esparruak ez erabiltzea.
4. Estatutuek edo kode honek bilkideentzat ezartzen duten betebeharren bat noizean behin ez betetzea, betiere ondorengo apartatueta espresuki bilduta ez badaude.
5. 1. mailako prozedura baten eraginpean egotea Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloa aplikatuz.

18. artikulua. Arau-hauste astunak

Honako jokabide hauetakoren bat agertzea hartuko da arau-hauste astuntzat:

1. EH Bilduren batzarren eta gainerako organoen akordio eta erabakiei entzungor egitea.
2. EH Bilduren oinarri ideologiko eta programatikoei eta antolamendu-batasunari eraso egitea.
3. Kuota behin eta berriz ez ordaintzea, horretarako arrazoi nahikorik ez dagoenean.
4. Buruzagi eta kargu publikoen estatutu-desbideratzeak, zintzotasunik eza edo eraginkortasun politikorik eza.
5. EH Bilduri ospea kentzen dioten edo erakundea edo haren organoak iraintzen dituzten albiste faltsuak zabaltzea.
6. EH Bilduren izenean erakundea konprometitzen duten adierazpen publikoak egitea, organo eskudunaren baimenik gabe, hori kaltegarria izanik EH Bilduren irudi publikorako edota antolamendu-batasunerako.
7. Ez dagozkion mota edo izaera orotako kargu edo funtzioak faltsutzea edo betetzea.
8. Bi arau-hauste arin edo gehiagorengatik batzordearen zigorra jaso izana.
9. 2. mailako prozedura baten eraginpean egotea Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloa aplikatuz.

19. artikulua. Arau-hauste oso astunak

Honako jokabide hauetakoren bat agertzea hartuko da arau-hauste oso astuntzat:

1. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasotako eskubideetako edozeini eraso egitea.
2. EH Bilduren izenean erakundea konprometitzen duten adierazpen publikoak egitea, ordezkaritza-kargo publiko bat edo garrantzi publikoa duen kargu organiko bat duela, organo eskudunaren baimenik gabe, adierazpen horiek bereziki kaltegarria izanik EH Bilduren irudi publikorako edota antolamendu-batasunerako.

3. EH Bilduren Kode Etikoa urratzea.
4. EH Bilduk Indarkeria Matxistaren Aurka onartuta duen Protokoloa ezagutzeko, errespetatzeko eta aplikatzeko betebeharra ez betetzea.
5. Kasuen kudeaketatik eratorritako Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloan ezarritako ebazpenak eta ondorioak urratzea, haiei men ez egitea, distortsionatzea edo mespretxatzea.
6. Federazioaren ondasun edo funtsak bidegabe besterentzea edo norberarentzat esleitzea.
7. Kargu publikoak edota organikoak betetzean EH Bilduren printzipioen aurka jardutea.
8. Kargu publikoak edota organikoak betetzean edozein ustelkeria motatan jardutea.
9. Kargu organiko bat betetzeagatik ezagutzen den informazio erreserbatua beste erakunde politiko batzuei edo hirugarren pertsonari ematea.
10. EH Bilduren oinarri ideologiko eta programatikoei eta antolamendu-batasunari era larrian eta behin eta berriz eraso egitea.
11. EH Bilduren aurkako alderdi edo elkarten ekintza politikoarekiko elkartasuna agertzea edo ekintza horretan laguntzea, eta/edo eragile politikoekin edo herritarrekin EH Bilduren edo haren organoen aurka konjuratzea.
12. EH Bilduren batzarren eta gainerako organoen zehaztapenei dagokienez diziplinarik gabe jokatzeko.
13. Kapitulu honetan adierazitako diziplina-organoetan funtsik gabeko gertakariekin eta iruzur-asmoz salaketa bat aurkeztea.
14. Hauteskundeetan edozein kargu lortzeko beste alderdi politiko edo hauteskunde-koalizio bateko hautagaia izatea, Hegoaldeko Mahai Politikoak espresuki baimentzen duenean izan ezik.
15. Alderdi politikoei buruzko 6/2002 Lege Organikoaren 9.3 artikuluan aurreikusitako jokabideren bat edo batzuk behin eta berriz agertzea.
16. Bi arau-hauste astun edo gehiagorengatik batzordearen zigorra jaso izana hamabi hilabeteko aldian.
17. 3. edo 4. mailako prozedura baten eraginpean egotea Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloa aplikatuz.

20. artikulua. Zehapenak erabakitzea

1. Pertsona bati estatutuzko arau-hauste bat egiteagatik lege ezarritako ondorio juridikoa jotzen da zehapentzat.
2. Erregelamendu honen arabera hartutako kautelazko neurriak ez dira zehatzaileak izango. Hala ere, neurri horiek ezin badira jo zigor-izaerakoa ez den ondorioztat, neurriok betetzeak azkenean ezarritzen den zehapena konpentsatzeko balio duen aztertu ahal izango da, hala badagokio.
3. Zehapenak proportzionaltasun-printzipioari jarraituz ezarriko dira, arau-hausteen astuntasunaren eta izaeraren arabera eta hautsitako arauaren xedearen arabera. Arau-hauste bat egitea ezingo da inoiz arauak betetzea baino abantailatsuagoa izan.

4. Zehapena graduatzeko, 6. artikuluan xedatutakoa eta, bereziki, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
- (A) Erruduntasun-maila edo asmorik egon ote den.
 - (B) Jokabide arau-hauslea jarraitua edo iraunkorra izan ote den.
 - (C) Sortutako kalteen izaera.
 - (D) Berrerortzerik egon ote den, hots, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin ote den, ebazpen irmo batek hala adierazi duenean.
 - (E) Jokabideak EH Bilduri, haren egiturei, ondasunei edo baliabideei kalte ekonomiko zuzena eragin badio, ebazpenak isun bat ezarri ahal izango du, sortutako kaltearen kostua osorik edo partzialki estaltzera bideratua.

21. artikulua. Zehapen-motak

Erakundearen printzipioen aurkakoak diren jokabideek zehapen hauek ezartzea ekar dezakete, arau-haustearen astuntasunaren arabera graduatuak:

1. Kargu-hartzea edo ohartaraztea. Arau-hauste arinak eta astunak egiten direnean aplikatu daitezke, bilkidea parte hartzen duen organoaren eremura mugatuta.
2. Isun ekonomikoa, arau-haustek kalte ekonomiko zuzena eragin duenean eta/edo ordezkotzat, ebazpenean berariaz arrazoitzen denean.
3. EH Bilduk antolatutako eta kudeatutako espazioetan (publiko zein pribatuetan) sartzeko aldi baterako debekua:
 - (A) Arau-hauste arinak: 6 hilabete
 - (B) Arau-hauste astunak: urte 1
 - (C) Arau-hauste oso astunak: 2 urte
4. Kargu organiko edo publikoetan aritzeko aldi baterako desgaitzea eta diharduen karguetatik kentzea:
 - (A) Arau-hauste arinak: urte 1
 - (B) Arau-hauste astunak: 2 urte
 - (C) Arau-hauste oso astunak: 3 urte
5. Bilkide-izaera aldi baterako etetea. Ezarritako aldian afiliazioaren ondoriozko eskubideak behin-behinean galtzea ekarriko du, EH Bildurekiko lotura organikoa behin betiko azkendu gabe:
 - (A) Arau-hauste arinak: urte 1
 - (B) Arau-hauste astunak: 2 urte
 - (C) Arau-hauste oso astunak: 3 urte
6. Bilkide izateari behin betiko uztea. Afiliazioan baja ematea eta EH Bilduk kudeatutako espazio guztietatik kanporatzea ekarriko du. Arau-hauste oso astunak egiten direnean bakarrik aplikatu ahal izango da.

1. apartatutik 5. apartaturaino xedatutako zehapenak batera aplikatu ahal izango dira, baldin eta bateragarriak eta egitateen astuntasunarekiko proportzionalak direla arrazoitzen bada. 6. apartatuan xedatutako zehapenak besteak baztertuko ditu eta ezingo da haiekin konbinatu.

22. artikulua. Zehapenaren araubidea eta aplikazioa

1. EH Bilduren estatutueta edo erregelamendu honetan berariaz xedatutako zehapenak bakarrik ezarri ahal izango dira.
2. Kasu zehatz bakoitzean aplikagarria den zehapena erabakitzeko, inguruabar astungarriak eta aringarriak haztatu beharko dira, 6. eta 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
3. Bilkide-izaeraren etendura arau-hauste astunak edo oso astunak egiten direnean bakarrik ezarri ahal izango da. Behin betiko kanporatzea arau-hauste oso astunak egiten direnean bakarrik izango da bidezkoa.
4. Alderdi Politikoei buruzko 6/2002 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik:
 - (A) Afiliazioaren kautelazko etendura automatikoa aplikatuko zaie zigor-arloko prozesu batean dauden bilkideei, prozesu horretan ustelkeriarekin lotutako delituengatik ahozko epaiketa bat has-teko autoa eman bada.
 - (B) Behin betiko kaleratzea aplikatuko zaie ustelkeriarekin lotutako delituengatik epai irmo baten bidez kondenatu dituzten pertsonen, auzitegiek jada egitate horiengatik zigor-arloko zehapena jarri badiete ere.
5. Aurreko apartatuan xedatutako kaleratzea ezartzeko ez da beharrezkoa izango zehapen-espedien-terik bideratzea. Aitzitik, bermeen arloko eskumena duen organoaren erabaki arrazoituaren bidez egingo da, interesdunari entzun ondoren eta haren defentsarako eskubidea erabat errespetatuz.

III. Titulua. Prozedura

I. Kapituluak. Xedapen orokorrak

23. artikulua. Prozeduraren arau-eremua

1. Kapitulu honetako arauak EH Bildun zehatzeko ahala erabiltzeko egiten diren prozedura guztiei aplikatu ahal izango zaizkie.
2. Zehapen-prozedurak EH Bilduren Estatutuan ezarritako printzipioei eta araei eta hura garatzeko ematen diren erregelamenduzko araei jarraituko die. Garatzeko araurik ez badago, administrazio-prozedura erkideko arauak aplikatu ahal izango dira.

24. artikulua. Sarbide iraunkorraren printzipioa

Prozedura sarbide iraunkorraren printzipioarekin bat etorritik gauzatuko da. Ondorio horietarako, interesdunek, prozeduraren edozein unetan, eskubidea daukate izapidetze-egoeraren berri izateko eta prozedurako dokumentuen kopiak eskuratzeko.

25. artikulua. Zigor-arloko prozesuarekin bat egitea

1. Espedientearen instrukzio-egileak prozeduraren edozein unetan uste badu instrukzioak xede dituen egitateak zigor-arloko delitutzat jo daitezkeela, organo izapidegileari jakinaraziko dio, eta hark, berriz, ebazteko eskumena duen organo zehatzaileari. Organo zehatzaileak, organo izapidegilearen iritzia arrazoizkoa iruditzen bazaio, agintaritza eskudunari jakinaraziko dizkio egitateok, arauak betetzeari buruzko EH Bilduren politikek hala eskatzen badute.
2. Egitate berberei buruzko zigor-arloko prozesu bat aribidean badago eta erabaki judiziala ezinbestekoa bada zehapen-prozedura ebazteko, organo zehatzaileak prozedura etetea erabaki beharko du, bai alderdi interesdunaren komunikazioaren bidez bai beste edozein bide egiaztaturen bidez zigor-arloko jarduketak daudela baieztatzen den unetik.
3. Etendura ebazpen judizial irmo bat eman arte mantenduko da. Nolanahi ere, ebazpen penal horretan frogatutzat deklaraturako egitateak lotesleak izango dira organo zehatzailearentzat.
4. Organo izapidegileak ofizioz berrikusi ahal izango ditu lehenago emandako zehapen-ebazpen guztiak, ebazpen judizial penal irmo batean frogatutzat deklaraturako egitateekin bateraezinak diren egitateetan oinarritu baziren.

26. artikulua. Organo eskudunak

1. Zehatzeko ahala erabiltzea Hegoaldeko Idazkaritzari dagokio (aurrerantzean, organo zehatzailea), eta hark dauka zehapen-prozedura ebazteko ahalmena.

2. Edonola ere, ezinbestekoa da instrukzio-fasea eta ebazpen-fasea bereizita egotea, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren printzipioak betez. Instrukzio-fasea Antolaketa Idazkaritzak (aurrerantzean, organo izapidegilea), zeinak organo bereizi gisa jardungo baitu, izendatutako pertsonari aginduko zaio.
3. Organo izapidegileak instrukzio-egile bat izendatuko du.
4. Instrukzio-egileak autonomia eta independentziarekin jardungo du instrukzio-fase osoan bere funtzioak betetzean.

27. artikulua. Interesdunak

Erantzule gerta daitezkeen pertsonen gain, eskubideen edo interes zilegi indibidualen edo kolektiboen titular gisa prozedura sustatzen dutenak dira prozedurako interesdunak.

28. artikulua. Arau-haustearen biktima

1. Egitateek pertsona bati eragin diotenean, arau-haustearen biktima dela aitortuko zaio. Instrukzio-egileak biktima identifikatu beharko du eta espedienterako sarbidea bermatu beharko dio, prozedurara aurkezteko eta bere eskubideak erabiltzeko aukera eduki dezan.
2. Prozeduran egindako agerraldian, erlazionatutako auzi judizial batean izandako esku-hartzean edo ofiziozko beste edozein bitarteko batean oinarrituta egon ahal izango da identifikazioa.
3. Behin identifikatuta, espedientea berrogeita zortzi (48) orduko epean helaraziko zaio eta, horrekin batera, bere eskubideei buruzko eta esku har dezakeen prozesuko egintzei buruzko informazioa emango zaio.
4. Prozedura ezingo da amaitu biktima identifikatu gabe eta parte hartzeko duen eskubidea bermatu gabe. Ezin bada biktima identifikatu, espedientean sartuko den txosten arrazoitu batean justifikatuko da.

29. artikulua. Kautelazko edo behin-behineko neurriak

1. Organo zehatzaileak, prozeduraren edozein unetan, kautelazko edo behin-behineko neurriak hartzea erabaki ahal izango du honetarako beharrezkoak direnean:
 - (A) Eman daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzea.
 - (B) Prozedura oztopatzea eragozteak.
 - (C) Egitateak errepikatzea edo kaltearen iraupena luzatzea saihestea.
 - (D) Sortutako efektuak arintzea.
 - (E) Egitateen astuntasunari edo alarma sozialeko arrazoiei erantzutea.
2. Kautelazko neurriak modu hauetan hartu ahal izango dira:
 - (A) organo zehatzaileak ofizioz erabakita edo
 - (B) instrukzio-egileak modu arrazoituan proposatuta.

Bi kasuetan, ebazpen arrazoitu baten bidez ezarri beharko dira, proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritik.

3. Neurriak ezingo dira mantendu beren xedea betetzeko behar-beharrezkoa den denboraz haraindi eta une hauetan azkendu beharko dira:
 - (A) Prozedura amaitzen denean.
 - (B) Babes-errekurtso bat ebaztean neurriak kentzea edo ordeztea erabakitzen denean.
 - (C) Zehapen-prozedura iraungi dela deklaritzen denean.
4. Organo zehatzaileak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, kautelazko neurriak aldatu, ordeztu edo errebokatu ahal izango ditu neurriok eragin zituzten arrazoiak desagertzen direnean, justifikatzen zituzten inguruabarrak nabarmen aldatzen direnean edo babes-errekurtso bat baiestean hala erabakitzen denean.
5. Eragindako pertsonak babes-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kontrol eta Berme Batzordeari, bost (5) egun balioduneko epean, ezarritako neurriak kentzeko edo aldatzeko eskatze aldera.

30. artikulua. Egozpen-akatsa

Prozedura hasitakoan egiaztatzen bada erantzule gertatzen diren pertsonak ez direla hasiera batean inputatutakoak, beste batzuk baizik, lehenengoak absolbitzeko ebazpen bat emango da eta bigarrenari dagokienez beste prozedura bat hasiko da, arau-haustea ez badu haientzat preskribatu.

II. Kapituluak. Prozeduraren hasiera

I. atala. Aurretiko fasea: atariko jarduketak eta adiskidetzea

31. artikulua. Adiskidetze-egintza

1. Prozedura hasi baino lehen, instrukzio-egileak aurretiazko informazio-aldi bat ezartzea erabaki ahal izango du, honako hauek zehazteko:
 - (A) Zehapen-prozedura bat hastea justifika lezaketen egitateak.
 - (B) Ustezko erantzuleen nortasuna.
 - (C) Kasuaren inguruabar esanguratsuak.
2. Funtzio horiek ikuskatzeko, ikertzeko edo aztertze lanak esleituta dauzkanari agindu ahal izango zaizkio edo, bestela, xede horretarako instrukzio-egile izendatu den pertsonari.
3. Aldi horretan —ahal bada, ez du bi hilabete baino gehiago iraungo—, instrukzio-egileak:
 - (A) Adiskidetze-egintza bat sustatu beharko du espedientearen jatorria bilkideen arteko gatazka bat bada, arrazoi justifikaturik ezean.
 - (B) Beste edozein kasutan ere sustatu ahal izango du, egokia iruditzen bazaio.
4. Instrukzio-egileak kudeatuko du adiskidetze-egintza, eta Borondatezko Jurisdikzioaren 15/2015 Legearen printzipioetan inspiratu ahal izango da: arintasuna, eraginkortasuna, elkarrenganako errespetua eta elkarriketan oinarritutako irtenbidea.

5. Adiskidetzearen ondorioz abenikoa lortzen bada, amaiera emango dio prozedurari, espedientea hasi beharrik gabe. Ondorioei buruzko txosten bat eta akta bat idatziko dira. Akta alderdiek sinatuko dute eta Hegoaldeko Idazkaritzari jakinaraziko zaio.
6. Adiskidetzea akordiorik gabe amaitzen bada, hurrengo atalean xedatutako prozedura arruntari ekingo zaio.

II. atala. Hasiera formala

32. artikulua. Hasteko prozedura

1. Ezingo da inolako zehapenik ezarri dagokion zehapen-prozedura izapidetu gabe.
2. Prozedurak ofizioz hasiko dira, Antolaketa Idazkaritzaren erabaki baten bitartez, bide hauetako batean:
 - (A) Idazkaritzak berak erabakita.
 - (B) Alderdi interesdun batek eskatuta.
 - (C) Idazkaritza Nagusiaren agindua betez.
 - (D) Beste organo batzuek eskaera arrazoitua eginda.
 - (E) Salaketa baten ondorioz.
3. Hasteko eskaerek, gutxienez, honako hauek jaso beharko dituzte:
 - (A) Egitateen kontakizun zehatza.
 - (B) Tipifikazio juridiko posiblea.
 - (C) Egitateak izan ziren unea edo aldia.
 - (D) Ustezko erantzuleen identifikazioa, ahal bada.

Eskaera baten aurkezpena ez da loteslea organo eskudunarentzat. Hala ere, organo eskudunak bere erabaki arrazoitua jakinarazi beharko du, batez ere prozedura hasten ez badu.
4. Salaketarik jartzen bada, EH Bilduk salatzailearen nortasuna babestuko du hark berariaz eskatzen badu.

33. artikulua. Alderdi interesdun batek eskatuta hastea eta onartzea

1. Alderdi interesdun batek ehbildu@ehbildu.eus helbide elektronikora bidalitako idazki baten bidez eskatuta ere hasi ahal izango da prozedura. Eskaerarekin batera, bere interesdun-izaera eta bere asmoa funtsatzeko agiriak, tresnak edo frogak erantsi ahal izango ditu interesdunak.
2. Kasu hauetan ez da eskaera onartuko:
 - (A) Argitasun nahikorik ez daukanean.
 - (B) Nabarmen funsgabea denean, argudioa eta froga-laguntza kontuan hartuta.
 - (C) Interesdun ez den norbaitek aurkeztu duenean.
3. Organo izapidegileak proposatuko du eskaera ez onartzea, eta organo zehatzaileak erabakiko du, ebazpen arrazoitu baten bidez.

34. artikulua. Hasteko erabakia

Hasteko erabakia organo izapidegileak eman beharko du eta, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu:

- (A) Erabakiaren data.
- (B) Ustezko erantzulearen edo erantzuleen identifikazioa.
- (C) Biktimaren identifikazioa eta dauzkan eskubideak.
- (D) Prozedura hasteko arrazoi diren egitateak, kalifikazio juridiko posiblea eta aurreikusitako zehapenak, instrukzioaren ondorioz beste zerbait erabaki daitekeen arren.
- (E) Prozeduraren instrukzio-egilearen izendapena eta errekusatze-araubidea.
- (F) Ebazteko eskuduna den organoaren identifikazioa eta eskumena esleitzen dion araua. Hala badagokio, honako hauen berri emango da:
 - Erantzukizuna borondatez aitortzeko aukera, aurreikusitako ondorioekin.
 - Prozedura arau-hauslearen eta biktimaren arteko edo EH Bildurekiko adiskidetzea edo erreparazioa lortuta amaitzeko aukera, 35. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- (G) Erabakitako behin-behineko neurriak eta organo zehatzaileak edo —babes-errekurtsua dela-eta bidezkoa bada— Kontrol eta Berme Batzordeak neurriei dagokienez egindako berrespena, aldaketa edo errebokatzea.
- (H) Entzunaldia izateko eta alegazioak aurkezteko eskubideei buruzko informazioa eta eskubideok erabiltzeko epeak, baita alegaziorik aurkeztzen ez bada eta erabakiak egotzitako erantzukizunari buruzko erabaki zehatza jasotzen badu erabakia ebazpen-proposamentzat jo ahal izango delako ohartarazpena ere.

III. Kapitulua. Prozeduraren instrukzioa

35. artikulua. Instrukzioa

1. Hasteko erabakia instrukzio-egileari komunikatuko zaio, eskaerarekin, salaketa edo eskaera arrazoi-tuarekin eta dokumentazio eskuragarriarekin batera. Erabaki horretan, gehienez lau (4) hilabeteko epea emango da prozedura ebazteko eta amaitu dela jakinarazteko, erabakia hartzen den egunetik zenbatuta. Ebazpena ustezko erantzuleari eta gainerako interesdunei jakinaraziko zaie.
2. Interesdunek hamabost (15) egun balioduneko epea edukiko dute, hasteko erabakia jakinarazten denetik aurrera, alegazioak aurkezteko, dokumentuak gehitzeko edo frogaldi bat hastea eskatzeko, bidezkoak iruditzen zaizkien frogabideak proposatuz.
3. Prozeduran zehar, eta nolanahi ere entzunaldi-izapidea egin baino lehen, interesdunek alegazioak edo dokumentu osagarriak aurkeztu ahal izango dituzte, eta horiek ebazpen-proposamena idaztean baloratuko dira.
4. Instrukzio-egileak une oro bermatuko du kontraesan-printzipioa, arma-berdintasunaren printzipioa eta egintzak arrazoitzearen printzipioa errespetatzen direla.
5. Instrukzio-egileak, ebazpen arrazoitu baten bidez, alderdiek proposaturiko frogak gauzatzea baztertutik ahal izango du. Hori eginez gero, interesdunei jakinaraziko zaie, berrogeita zortzi (48) orduko epean egokia iruditzen zaiena alega dezaten.

36. artikulua. Froga

1. Interesdunek edozein unetan aurkeztu ahal izango dituzte frogak instrukzioan zehar, hurrengo artikuluan xedatutako entzunaldi-izapidea amaitu arte.
2. Instrukzio-egileak ofizioz erabaki ahal izango du egitateak argitzeko beharrezkotzat jotzen duen froga ororen gauzatzea.
3. Ebazpen judizial irmoen bidez frogatzat deklaraturako egitateak lotesleak izango dira organo zehatzailearentzat prozeduraren esparruan.

37. artikulua. Entzunaldi-izapidea

1. Instrukzioa amaitutakoan eta ebazpen-proposamena eman aurretik, interesdunei hamabost (15) egun balioduneko epea emango zaie alegazioak egiteko eta egokiak iruditzen zaizkien dokumentuak edo justifikazioak aurkezteko.
2. Interesdunak berariaz adierazten badu epea amaitu baino lehen ez duela alegaziorik egin nahi, izapidea betetzat joko da.
3. Entzunaldi-izapidea bazter utzi ahal izango da jada ezagunak direnez edo interesdunek aurkeztutakoez bestelako egitaterik, alegaziorik edo frogarik gehitzen ez zaionean prozedurari.

IV. Kapitulua. Ebazpen-proposamena

I. atala. Absolbitze-txostena

38. artikulua. Instrukzio-txostena

1. Instrukzio-egileak instrukzio-txosten bat egin ahal izango du bidezkotzat jotzen duenean prozedurari amaiera ematea ebazpen-proposamenik eman gabe, instrukzio-fasean inguruabar hauetako bat izan delako:
 - (A) Hasieran salatutako egitateak ez existitzea edo egiaztapen nahikorik ez egotea.
 - (B) Egitate frogatuek ez ekartzea nabarmenki inolako arau-hausterik.
 - (C) Erantzule identifikaturik ez egotea edo, egonez gero, erantzukizunetik salbuetsita egotea.
 - (D) Arau-haustea preskribatuta egotea.
2. Kasu horietan, txostenak (absolbitze-txostenak) honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:
 - (A) Erregelamendu honetako kasu aplikagarriarik ez egoteagatik izapidetzen jarraitzeari uko egiteko adierazpen formal eta arrazoitua. Baliteke adierazpen horrek entzunaldi-izapidea jasotzea ala ez jasotzea, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - (B) Ondorioa froga-balorazio batean edo iritzi juridiko batean oinarrituta ote dagoen adierazten duen berariazko zehaztapena, beharrezkoa den funtsarekin.
 - (C) Jarduketak artxibatze eta, hala badagokio, inplikaturako pertsona edo pertsonak absolbitzeko proposamena.

II. atala. Zehapen-proposamena

39. artikulua. Ebazpen-proposamena

Instrukzio-egileak ebazpen-proposamen bat emango du instrukzioaren ondoren uste duenean badaudela arau-haustea dakarten egitateak eta pertsona bati edo batzuei egotz dakiekeen erantzukizuna.

1. Proposamenak, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu:
 - (A) Frogatutzat jotzen diren egitateak eta funtsatzen dituzten frogen balorazioa.
 - (B) Erantzuleen identifikazioa, manu aplikagarriak eta froga-oinarria aipatuz.
 - (C) Egitateen tipifikazio juridikoa eta aplikagarria den arau-haustea edo arau-haustea.
 - (D) Proposatutako zehapenak eta ondorio osagarriak, justifikazioarekin, manu aplikagarriekin eta kontuan hartutako inguruabarrekin, betearazpena eteteko, zatikatzeko edo aldatzeko proposamena barne, hala badagokio.
2. Ez da alegazio-izapide berririk irekiko salbu eta proposamenak egitate berriak edo entzunaldi-izapidean jada ezaguna denaren aldaketa nabarmenak jasotzen baditu.

40. artikulua. Jarduketa osagarriak

1. Ebazpen-proposamena eman aurretik, organo eskudunak, ebazpen arrazoitu baten bidez, prozedura ebazteko beharrezkoak diren jarduketa osagarriak gauzatzea erabaki ahal izango du. Jarduketok gehienez ere hamabost (15) egun balioduneko epean egin beharko dira.
2. Ez dira jarduketa osagarritzat joko azken ebazpena baino lehen emandako nahitaezko txostenak edo irizpenak.

V. Kapitula. Ebazpena eta itxiera

41. artikulua. Espedientearen ebazpena

1. Organo zehatzaileak ebazpen arrazoitu bat emango du eta, bertan, interesdunek azaldutako kontu guztiei buruzko eta prozeduratik eratortzen diren beste guztiei buruzko erabakia eman beharko du.
2. Ebazpenak, gutxienez, 39.1 artikuluan a), b), c) eta d) letretan ezarritako elementuak jaso beharko ditu.
3. Ebazpena interesdunei jakinarazi beharko zaie, eta berariaz zehaztuko du zer errekurtso jar daitezkeen beraren aurka, zer organotan jarri behar diren eta zer epe dagoen horretarako.
4. Ebazpena bide elektronikoen bitartez emango da eta, ahal bada, bide beretik jakinaraziko da, betiere formalizatzen den dokumentuaren autentikotasuna eta osotasuna bermatuz.

VI. Kapitulua. Prozedura amaitzeko beste modu batzuk

42. artikulua. Prozedura amaitzeko beste modu batzuk

1. 41. artikuluaaren arabera emandako ebazpenaz gain, honako modu hauek emango diote amaiera prozedurari:
 - (A) Erantzukizuna aitortzeak.
 - (B) Interesdunek atzera egitea edo uko egiteak.
 - (C) Iraungi dela adierazteak.
2. Kasu guztietan, prozeduraren amaiera ebazpen arrazoitu baten bidez formalizatu beharko da.

43. artikulua. Erantzukizuna aitortzeagatik amaitzea

Zehapen-prozedura hasi ondorengo edozein unetan, ustezko arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen badu, organo zehatzaileak dagokion zehapena ezarriz ebatzi ahal izango du prozedura, egitateen kalifikazioa, proportzionaltasun-printzipioa eta tipikotasun-printzipioa kontuan hartuta.

44. artikulua. Atzera egiteagatik edo uko egiteagatik amaitzea

1. Ofizios hasitako prozeduretan, EH Bilduk modu arrazoituan atzera egin ahal izango du justifikatzen duten arrazoiak daudenean.

Atzera egiteak ez du eragotziko beste prozedura bat irekitzea, baldin eta:

 - (A) egitate edo froga esanguratsu berriak aurkezten badira edo
 - (B) jarraitzea eragozten zuten arrazoiak desagertzen badira.
2. Alderdi batek eskatuta hasitako prozeduretan, interesdunek aukera hauek edukiko dituzte
 - (A) beren eskaeran atzera egitea edo
 - (B) beren eskubideei uko egitea, baldin eta hori antolamendu juridikoan debekatuta ez badago eta interes orokorrari kalterik egiten ez badio.
3. Eskaera pertsona batek baino gehiagok egin dutenean, atzera egiteak edo uko egiteak asmo hori berriaz adierazi dutenei bakarrik eragingo die.

45. artikulua. Prozedura iraungitzea

1. Zehapen-prozedura iraungitzat joko da hasi eta lau (4) hilabeteko epean ez bada ebazpenik eman eta jakinarazi, erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera.
2. Lau (4) hilabeteko epe hori eten egingo da prozedura interesdunei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik geldiarazita dagoen bitartean.
3. Salbuespenez, ez da iraungipenik aplikatuko aztertutako kontuak interes orokorrari eragiten dionean eta, beraz, inplikaturako pertsonen edo eragileen banakako eremua gainditzten duenean. Horrelakoe-tan, berriaz erabaki beharko da jarraitzea, organo eskudunaren ebazpen arrazoituaren bidez.

4. Prozeduraren iraungipenak ez du preskripzio-epea etengo. Hala ere, epe hori igaro ez bada, beste prozedura bat hasi ahal izango da, iraungi ez balitz eduki-aldaketarik izango ez zuten aurreko egingizak eta izapideak gehituz.

VII. Kapitulua. Betearazpena

46. artikulua. Zehapenaren betearazpena

1. Ezarritako zehapena ebazpena barne-bidean irmo bihurtzen denean bakarrik izango da betearazlea. Epe barruan errekurtsorik jarri ez delako edo errekurtsio posibleetako azkena ebatzi delako gerta daiteke.
2. Zehatutako pertsonari ebazpen irmoa jakinaraziko zaio eta ebazpena betetzeko epeen, moduen eta baldintzen berri emango zaio berariaz. Betearazpen jarraituko zehapena bada, dagokion aplikazio-aldia zehaztuko da.
3. Ebazpena irmoa denean, ez da bidezkoa izango zehapena etetea kanpo-instantzietan ekintzen iragarpen soila eginez.
4. Salbuespenez, ebazpenean bertan irmotasunaren aurreko kautelazko neurriak ezarri ahal izango dira, ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak direnean.

VIII. Kapitulua. Errekurtsoa

47. artikulua. Barneko babes-errekurtsoa

1. Zehapen-ebazpenaren aurka barneko babes-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kontrol eta Berme Batzordeari, jakinarazi eta hamar (10) egun balioduneko epean, alegatzen denean estatutuetan, erregelamendu honetan edo alderdiaren jarduketa politikoaren oinarritzko printzipioetan aitortutako funtsezko eskubideak urratu direla.
2. Errekurtsoa idatziz aurkeztu beharko da (kontroletabermebatzordea@ehbildu.eus), ustez urratutako eskubideak, hori funtsatzen duten egitateak eta erreparazio gisa eskatutako neurriak arrazoituz.
3. Errekurtsoa jartzeak ez du automatikoki etengo zehapenaren betearazpena, salbu eta batzordeak kautelazko neurri gisa etetea erabakitzen badu, ukitutako eskubidearen izaera eta ondorioz egin daitekeen kaltea kontuan hartuta.
4. Batzordeak errekurtsoa onartu ez duela adierazi ahal izango du, ebazpen arrazoitu baten bidez, honako kasu hauetan:
 - (A) Funtsezko eskubideen urraketarik alegatzen ez denean.
 - (B) Errekurtsoa nabarmenki funsgabea denean.
 - (C) Epez kanpo aurkeztu denean.
5. Batzordeak gehienez ere berrogeita bost (45) egun balioduneko epean ebatziko du errekurtsoa, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ebazpenak honako hau egin ahal izango du:

- (A) Ezarritako zehapena guztiz edo hein batean berretsi, aldatu edo errebokatu.
 - (B) Ekitatean eta alderdiaren printzipioetan oinarritutako ordezkotik irtenbide bat proposatu.
6. Babes-errekurtsoaren ebazpenak barne-bidea agortuko du, baina interesdunak, hala badagokio, beste ekintza batzuk egin ahal izango ditu kanpo-instantzietan.

IX. Kapitulua. Izapidetze erraztua

48. artikulua. Izapidetze erraztua

1. Izapidetze erraztua egin ahal izango da arau-haustea arina delako zantzu nahikoak daudenean. Erabaki hori arrazoitua izango da eta interesdunei jakinaraziko zaie.
2. Erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, eta interesdunek prozedura arruntaren bidez izapidetzeko eskatu ahal izango dute beren defentsarako eskubideei kalte egiten diela uste badute. Eskaera hori instrukzio-egileak ebatzi beharko du, modu arrazoituan.
3. Prozedura gehienez ere hogeita hamar (30) egun baliouduneko epean ebatzi beharko da, izapidetze erraztua egiteko erabakia jakinarazten denetik.
4. Izapidetzeak, gutxienez, izapide hauek hartuko ditu barne:
 - (A) Hasteko erabakia, zeinean argi adieraziko baitira egitateak, haien kalifikazio juridiko posiblea eta proposatutako zehapena.
 - (B) Eskaeraren zuzenketa, hala badagokio.
 - (C) Hasierako alegazioak: bost (5) egun baliouduneko epea.
 - (D) Entzunaldi-izapidea, zeina nahitaezkoa baita zehapenik proposatzen bada, interesdunak berariaz uko egin ezean.
 - (E) Ebazpen arrazoitua, zeinean egitate frogatuak, oinarri juridikoak, zehapena (bidezkoa bada) eta errekurtsotik eskuragarriak adieraziko baitira.
5. Instrukzioan egiaztatzen bada froga konplexuak gauzatu behar direla, egitate berriak gehitu behar direla edo espedientea hirugarrenak barne hartzeko zabaldu behar dela, prozedura bide arruntan izapidetzen jarraituko da, erabaki arrazoitu baten bidez.

X. Kapitulua. Jarraitzaileentzako araubide berezia

49. artikulua. <https://elkarrekin.ehbildu.eus/> plataformaren bidez erregistratutako jarraitzaileak

1. 1.2 eta 1.4 artikuluetan ezartzen den moduan, EH Bilduren Komunitatea osatzen duten pertsonen —hau da, aipatutako plataformaren bidez jarraitzaile gisa erregistratu diren eta bilkide izateko afiliazioa formalizatu ez duten pertsonen— ez daukate Euskal Herria Bildu Alderdi Federazioaren estatutuen 10. artikuluan ezarritako eskubideak, ezta eginbeharrak ere.
2. EH Bilduren Komunitateko kide bat estatutuen, kode etikoaren edo EH Bilduren printzipioen eta balioen aurkakoak diren jokabideetan aritzen denean, organo izapidegileak honako hau egin ahal izango du, berehala eta zehapen-espedienterik izapidetu gabe:

- (A) <https://elkarrekin.ehbildu.eus> plataformaren erregistrotik kanpo utzi.
- (B) Parte hartzen duen edo parte hartzeko asmoa duen EH Bilduren espazio propioetatik, bai irekietatik (publikoetatik) bai barnekoetatik (publikoak ez direnetatik), irteteko agindu.
- (C) Pertsona horrek kargu publikoa badu edo hauteskundeetako hautagai-zerrendetako kide bada, kargu horri uko egiteko eskatuko zaio. Edozein kasutan, ezingo du EH Bilduren izenean kargua bete, ez eta balizko hutsune baten ondorioz izendatua izan ere.
Kargu organikoren bat izanez gero, berehala kargugabetua izan daiteke.
Halaber, pertsona horrek etorkizunean EH Bilduren izenean kargu organiko edo publikoak betetzeko ezgaitua izan daiteke.

Neurri horiek egitateen berri izaten den unetik aplikatuko dira eta prebentziozkoak izango dira, erakundearen interes orokorrean oinarrituak.

Azken xedapenak

Lehen xedapen gehigarria: Indarkeria Matxistaren aurkako Protokoloa

1. Indarkeria matxistaren aurkako borroka EH Bilduren funtsezko printzipioetako bat da eta hala aitortzen da berariaz bere estatutuetan. Indarkeria Matxistaren aurkako Protokoloa (aurrerantzean, IMA-Pa) aplikatzeko, berariazko zehapen-prozedura bati jarraitzen zaio.
2. Prozedura hori IMAP Protokoloan ezarritako arauen eta izapideen arabera garatuko da, eta prozeduratik eratorzen diren zehapenak nahitaez bete beharrekoak izango dira bilkide guztientzat eta EH Bilduren egitura guztientzat.
3. Afiliazio bikoitza duten pertsonen eragiten dieten kasuetan, EH Bildu osatzen duten alderdien protokoloen esparruan erabakitako ebazpenak, neurriak eta zehapenak lotesleak izango dira EH Bildurentzat. Ebazpen horiek Hegoaldeko Idazkaritzak berretsi beharko ditu eta haien aurka ezingo zaio babes-errekurtsorik aurkeztu EH Bilduko Kontrol eta Berme Batzordeari.
4. Hori guztia bat etorriko da EH Bilduren estatutuetako hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin.

Bigarren xedapen gehigarria: kodearen interpretazioa

1. Erregelamendu hau EH Bilduren estatutuekin bat etorritik interpretatuko da, horiek baitira haren arau nagusia.
2. Osagarri gisa, EH Bilduren printzipioak eta balioak hartuko dira kontuan, bereziki: ekimen politiko bateratua, etika militantea, funtsezko eskubideen errespetua, partaidetza demokratikoa, justizia soziala, benetako berdintasuna eta elkarren zaintza.
3. Interpretazio orok EH Bilduren proiektu politikoarekin koherentea izan beharko du eta bai interes kolektiboa bai inplikaturakoen eskubideak lehenetsi beharko ditu.

Xedapen iragankorra: aribideko prozedurei aplikatu beharreko araubidea

1. Erregelamendu hau indarrean ezarri baino lehen hasitako zehapen-prozedurak hasi zirenean indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetuko dira.
2. Erregelamendua indarrean ezartzen denetik gehienez ere sei (6) hilabeteko epean ebatzi beharko dira. Epe hori ebazpenik gabe igarotzen bada, beste hogeita hamar (30) egun baliodunen buruan iraungitzat joko dira.

Xedapen indargabetzailea: aurreko araudia indargabetzen du

Alderdi-federazioaren estatutuen ondoriozko zehatzeko ahala eta diziplina-araubidea, Kontrol eta Berme Batzordearen Erregelamenduan arautua eta 2022ko irailaren 17ko batzar nagusian onetsia, indargabetuta geratzen da, baita kode edo erregelamendu honetan xedatutakoarekin kontraesanetan dauden maila bereko edo maila baxuagoko xedapenak ere.

Azken xedapena: indarrean ezartzea

Erregelamendu hau EH Bilduren Batzar Nagusiak edo Biltzarrak onetsi eta hurrengo egunean egongo da indarrean.

Indarraldi mugagabea edukiko du eta EH Bilduren estatutuetan funtsezkoak diren eta funtsezkoak ez diren aldaketetarako ezarritako prozeduraren arabera aldatu ahal izango da.

Aldaketen historia

DATA	BERTSIOA	NORK SORTUA	ALDAKETAREN AZALPENA
2025/09/20	1.0	Batzar nagusiak (Konferentzia politikoa)	Oinarrizko dokumentuaren eraketa

ehbildu